

Literatura ▸ LIBURUAK

Alegoria politikoaren interpretazioak

BENAT SARASOLA

Institutu garaian Filosofia ikasgaiak irakurri behar izan nuen estreinakoz George Orwell-en 1984 liburua. Nire ingeles eskasa kontuan izanik, gaztelaraz irakurri nuen nahiz eta gero eginbeharrak (laburpenak, komentarioak eta abarreak) euskaraz idatzi nituen. Ikasketak euskaraz burutu dituen inori ez zaio arraroa irudituko halakorik, ez gehiago unibertsitatean ere euskaraz ibili baldin bada. Euskaraz mintzatzen gara eskolan, euskarazko ikasliburuak erabiltzen ditugu, euskaraz lan eta azterketak, baina ikasmaterial oinarrikoa ikasliburu eta apunteak izateari uzten diotenean... Horregatik, ezer baino lehen, poz handia hartu dut hemendik aurrera, Oskar Aranari esker, liburu hau euskaraz irakurri ahal izango dutelako, nik ez bezala, batxilergoko ikasleek.

1984 liburua aski irakurria da, akaso irakurterraza izateaz gain, alegoria politiko bat —zehazki distopia bat— delako. Baina ezin uka asko harritzen nauela nobela hau nola sozializatu den gure artean. Gauza aski kurioa baita, nola diskurtso ezkerriar tradizional

ugarik jasotzen duten begi onez, funtsean Stalin eta SESB-en kritika den nobela hau. Badirudi irakurleen artean onartua dagoela liburuak ukitu politiko aurrerakoa duena, esan nahi baita, AHTren kontrako manifestazio batean liburuak besapean emanez gero inork ez dizula kargu hartuko (arren, ez ondorioztatu liburu bat besapean eramateagatik inori kargu hartu behar zaiola esaten ari naizenik). Literatur kritikaren barruan 1984 liburua sortu duen eztabaida, ordea, guztiz diferentea da, eta ondorioz, irakurketa estandarren eta irakurketa kritikoaren artean halako distantzia bat dagoela dirudi. Interesgarria da distantzia hau zertan den ikustea.

Liburu hau ikuspuntu ezkerriar batetik zorrozki kritikatu duten idazle nagusiak Raymond Williams eta Edward Said dira. Williamsen aburuz, Orwellrek errepresio eta jazarpen autoritarioaren forma moderno guztiak aukera politiko bakarrari, komunismoari, leporatzen dizkio liburu honetan. Gainera, sistemaren kontrako edozein elementu neutralizatu egiten du, masa (proleak) erridikulizaturik azaltzen da eta benetako borroka politikoa elite



■ '1984'

Argitaletxea: George Orwell.
Argitaletxea: Txalaparta. **Itzultzailea:** Oskar Arana.

baten barruan gauzatzen da soilik. Egia da nobelako une batean Winstonek «Itxaropenik bada, proletarioen baitan da» idazten duela bere koadernoan, baina Williamsen arabera, esaldi horrek

burgese-txikiaren humanitarismoa ordezkatzen du, erretorika hutsa, sakonean ez duelako proletarioetan sinisten. Orobat, Orwell sarritan hartu izan da komunismo sobietarraren kontra azaldu ziren lehenengotako intelektual marxistatzat. Saidek salatzen duenaren arabera, oster, Orwellrek ez zuen inoiz tradizio marxista ezagutu eta ezin izan zuen komunismoa «barnetik» kritikatu, izatez, liburu hau idatzi zuenerako bizitza burgesean ondo asko ostatu hartu zegoen eta ez zituen sekula bertako balioak auzitan ipini. Bestetik, Saidek Orwellen estilo aratz eta erraza aztertzen du. Mendebaldeko lekukotasuneko kazetari-tzaren aipontetaketatzat du estilo hori; hots, kazetariaren iritzia nahiz idazketak boterearekin duen erlazioa ezkututzen duen estiloaren aurrekaritzat.

Nolanahi dela, egia da, halaber, denborarekin liburuari interpretazio berriak gaineratu ahal zizkietela. 1984 liburuaren kasuan ere, egungo gizarte ultrateknologiko eta ultrakontrolatuaren adibide lez erabil daiteke agian, Txalapartak argitaratu duen itzulpeneko azalak iradokitzen digun bezala. Baina ezin da ahanztu liburuaren historia zein izan den eta, jatorriz, Gerra Hotzaren testuinguruan bi blokeetako bat —estatubatuarra— indartzeko erabili zela.

bsarasola@berria.info



■ 'Mariren erradiografia'.
Euskal inkontziente kolektiboaz'

Egilea: Alfons Martínez Lizaridua
eta Jon Baltza. **Argitaletxea:** Gaiak.
Urtea: 2007.

Mariren arketipoak barnean duen esangura sakona argitzea da, kontrazaleko testuak dioenez, liburu honen helburu nagusia. Lehenatalean, inkontziente kolektiboaren mekanismoak azaltzen dira; bigarrengoa, Mariren barneko egiturako matriarkalismo panteista; hirugarrenean, Mariren mitologia-ko berezitasun linguistikoak.



■ 'Jostailu zahar, jostailu berri'

Egilea: Carlos Santisteban.
Ilustrazioilea: Aitziber Alonso.
Argitaletxea: Desclee. **Urtea:** 2007.

Jostailuz gainekza du gela Nereak, Carlos Santistebanen narrazio honen protagonistak. Etxeko une bakarra izaki, nahi izan duen gutxia erosi izan diote beti gurasoek. Baina gutxitan erabili ditu Nereak jostailuak jolaserako. Apaletan eta kutxetan utzita dauzka denak. Harik eta egun batean aldaketa gertatzen den arte...



■ 'Sekretuak belarrira'

Egilea: Ruben Ruiz. **Ilustrazioilea:** Elena Odriozola. **Argitaletxea:** Aizkorri. **Urtea:** 2007.

Sei urtetik gorako irakurleentzako poemak jasotzen ditu Ruizen liburuak, urteari hilaitez hilaitez buelta osoa emanez. Izadiko elementu asko agertzen da poemetan, animaliak nola landareak. *Eklipsea* poema irakurtzen da kontrazalean: «Eguzkia bira eta bira / ilar-gia jira eta jira / kolpean elkartu dira / sekretuak belarrira».

Yeatsen belatza Niger gainean

BIXENTE SERRANO IZKO

W.B. Yeats bezala, Bigarren Etorrera halako bat espero al zuen Chinua Achebek eleberririk honetan? Anarkia hutsaren ondoren, Afrikan zerbaite berririk sortuko zelakoan jarri ote zion titulu hori, *Gainbehera dator dena*, poeta irlandararen *The Second Coming* poematik harturik? Baliteke, baina eleberririk kontatzen diguna gainbehera hutsa da, Afrikako herri kultura baten desegituraketa, europar kolonizatzaileen kulturarekin topo egitean jasanikoa. Halarik ere, zeharka baizik ez izanik ere (horrelako testuarekotasunaren bidez, hots, poema tragiko baina esperantzatsu horretatik hartzeagatik titulua), susma dezakegu nolabait Achebek, Yeats bezala, jaiotza berri bat espero duela kaosaren, erabateko hondamendiaren ondoren.

Idazle mezularia dugu Chinua Achebe bere ibilbidean. Mezu bat helarazi nahi du beti narrazioen bidez; inolaz ere ez, kasu!, panfleto literarioen bidez. Narratzaile soila, zuzen-zuzen doana irakurlearengana, bera lekuko duen errealitate eskaintze aldera, prediku



■ 'Gainbehera dator dena'

Egilea: Chinua Achebe. **Argitaletxea:** Alberdania. **Itzultzailea:** Alberto Martínez de la Cuadra.

moralistetatik urrun: kontakizuna bera da mezularia. Idazle gisa ez ezik, Chinua Achebe pertsona ere mezulari eta engaiatua dugu Afrikako bizitza politiko eta kulturealari. Alberdania eta Elkar argitale-

txeen lankidetzaren fruitu den Literatura Unibertsala bildumak ohiturik gaitu, hitzaurre efikaz bidez, euskaraturiko egile bakoitzari buruzko berririk funtsezkoak jasotzera, hala biografikoak nola literarioak. Itzultzaileek beralek egin ohi dituzte aurkezpen horiek, eta, kasurako, Alberto Martínez de la Cuadren hamalau orrialdeko hitzaurrea interesgarria suertatuko zaio irakurle jakin-goseari, aise jabe dadin Achebek jokatu duen paper kultural eta politikoaz, Nigerian, Biafran, Afrikan eta mundu zabalean.

Eleberririk honen tituluari ez ezik, egiturari ere erreparatu gero, Yeatsen poemako belatzaren hegaldia eta aztoramena, euren segidari, etorri zaizkio irudimenera irakurle honi. Hiru zati nagusi ditu narrazioak, hamahiru atalekoa lehena, zazpikoa bigarrena, bortz tituluarekin, aldiz, azkenekoa. Lehen zatian, hain zuzen, astisuago doa bizitza eta haren deskribapena, iboen erkidego txiki baten, honen egunerokotasun, bizimodu, gizarte-antolamendu, kultura eta kosmogoniaren inguruan biraka, belatzaren goi hegaldi dotorearen antza. Mundu hori, alabaina, ez da mundu idiliko bat,

bizia eta mugikorra baizik, eta, haren baitako dinamikaren ondorioz, aztoramena etorriko zaio protagonistari, dardara egingen diote bizi-erreferentziek eta «erdiguneak ezin dio eutsi», Yeatsen poema belatzari bezala: bigarren zatia, laburrago eta azkarragoa, dago, hots, horren kontakizuna. Azkenik, hondamendia, abiadura handi eta tarte are laburragoan eroria, eleberraren hirugarren zatikoa: «Anarkia hutsa askatu da mundu gainean», giza komunitate haren mundu gainean, jakina. Erdigunearen eutsiezintasun eta hondamendia ibo horien eta kolonizatzaile europarren unibertsosun arteko talkak eraginen ditu. Talka horretan, afrikarrentzat anarkia hutsa dena «Niger beheko tribu primitiboen baketzea» izanen da komisario ingelesarentzat: ulertezina suertatzen zaiona etnia-azterlari paternalista —arrazista, azken finean— baten antzera ulertu nahiko du.

Europarron ikuspegia aldarazteko idatzi zuen Chinua Achebek bere hau. Kitzikagarria da jakitea gure estimu handiko Joseph Conrad bezalako idazleen pinturen aurkako erreakzio gisa ekin zela gure egileak bere lan narratiboari. Eta zer bait lortu bada europarren begiak irekitze aldera, hau bezalako literaturari zor zaio neurri handi batean.

bserrano@berria.info